

EKINTZAILEAREN TRAGEDIA



Teloia igotzen da. Eszena guztiz biluzik dago. Bat batean, eszenatokiaren eskuinaldean izar-uso batek berri ona iragartzen du. Bat ezik, belauniko dauden pertsonaia batzuek bizkarra ematen diote ikusleei. Elkarrizketa ia entzunezina da.

- Itsaropena!

- Gerra seinale da.

- Ezeren seinale da.

Belauniko diraute, zeru beltza begiratuaz. Jendaurrera begira zutik dagoen pertsonaiaren ahotsa entzun dezakegu orain.

KAPITALA: Patroia hil da eta nik neuk akatu dut. Mobiliza gaitezen! Guztiok gara giza kapitala. Mobilizazio orokorra!

Beste pertsonaiak altxa egiten dira. Eszenatokian zehar banaturik, euren perfilak erakusten dituzte soilik.

EKINTZAILEA: Jauna, nire ordua iritsi dela uste dut.

KOROA: Ekintzailea, hona hemen ekintzailea.

COACHA: Esan nizun Jauna, eurengan sinesten dutenak ere badaudela. Pertsona oro lorategi bat da. Loratu zaitezte! Ideiarik baduzue, enpresa bat sortu.

KAPITALA: Azkenean irabazi egin dut. Kanpoalderik ez dago.

KOROA: Miseriaren ekintzaileak!

COACHA: Egin ezazue berak bezela. Ez da inoiz damutzen, guztiz librea baita. Ilargira apunta ezazue, nahiz eta oker egon izarretan bukatuko baiduzue.

KOROA: Bere askatasunean datza bere menpekotasuna.

KAPITALA: Ixil zaitezte behingoz! Bizitza bat eman dizuet eta hala ere ez zaudete pozik.

COACHA: Arrazoi duzu, azkenik bizitza bat daukagu. Modu kreatibo batean gestionatu behar dugun ondasunezko bizitza bat.

KOROA: Zertarako?

EKINTZAILEA (abesten): "La vida es una tom, tom... tómbola, de luz y de color". Abentura eta arriskua maite ditut.

KOROA: Ekintzailea, hemen da ekintzailea! Bere bizitzerekin pozik dagoela dio, ametsak egi bihurtzen dituela.

KAPITALA: Horrela da bai, bere bizitza diru bilakatzen du. Erabaki ezazue zeuek.

KOROA: Galdetu diezaiogun orakuluari. Zein da misterio honen erantzuna?

ORAKULUA: Ekintzailea hain da hipraktiboa ezaiola ezer gertatzen.

